

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK ETA LANDETXEAK. 2020KO URRIA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako turistak % 63 jaitsi dira 2020ko urrian

Irailean erregistratutako datuek okerrera egin dute, eta turista atzeritarren kasuan, urriko jaitsiera % 80 ingurukoa da

Euskal AEko **hotel-establezimenduetan** 109.393 sarrera erregistratu dira urrian, aurreko urteko hil berean baino % 63,1 gutxiago. Urrian 209.716 gau igaro dituzte bidaiariak; hau da, urte arteko % 63,6ko jaitsiera. Zifra horiek txarragoak dira irailekoen aldean: irailean 130.004 sarrera erregistratu ziren, eta 249.794 gaualdi, zeinek ekarri batzituaren urte batetik besterako % 59 eta % 60,2ko jaitsierak, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia, betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Urria

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	2019/10	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
							2020/10	p.p.*	2020/10	p.p.*	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	109.393	-63,1	209.716	-63,6	1,92	1,94	25,5	-34,3	33,3	-39,9	69,2	-26,5	23,1	-66,6
Estatukoak	83.006	-50,2	162.035	-48,2	1,95	1,88	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	26.387	-79,7	47.681	-81,8	1,81	2,02	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	17.509	-53,2	33.290	-52,6	1,90	1,87	31,0	-22,2	41,5	-27,8	66,5	-8,4	27,6	-45,1
Estatukoak	14.618	-45,5	27.705	-44,1	1,90	1,85	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	2.891	-72,8	5.585	-72,9	1,93	1,94	-	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	12.253	-52,6	24.289	-52,4	1,98	1,98	34,0	-21,0	47,1	-27,9	59,3	-6,4	27,9	-41,2
BIZKAIA	43.721	-68,8	91.334	-66,1	2,09	1,92	24,0	-34,7	32,5	-40,0	63,6	-29,9	20,7	-68,6
Estatukoak	35.457	-56,3	74.011	-50,3	2,09	1,84	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	8.264	-86,0	17.323	-85,6	2,10	2,03	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao	29.341	-68,4	58.391	-67,6	1,99	1,94	25,5	-40,3	33,7	-46,4	68,0	-34,0	22,9	-72,2
GIPUZKOA	48.163	-59,5	85.092	-64,0	1,77	1,99	25,4	-38,0	31,6	-43,9	77,0	-26,8	24,3	-69,4
Estatukoak	32.931	-44,0	60.319	-47,4	1,83	1,95	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarak	15.232	-74,7	24.773	-79,7	1,63	2,03	-	-	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	28.873	-61,4	48.721	-67,1	1,69	1,98	25,4	-48,8	29,5	-56,7	93,3	-30,1	27,5	-76,1

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko alde

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID-19ak eragindako krisiak urrian ere eragin handia izan du hiru lurraldeetan. Hala, Bizkaian, 2020ko urriko sarrerak % 68,8 jaitsi dira 2019ko urriaren aldean; Gipuzkoan, % 59,5, eta, azkenik, Araban % 53,2. Gaualdiei dagokienez, urte arteko jaitsierak honakoak izan dira: Bizkaian % 66,1, Gipuzkoan % 64 eta Araban % 52,6.

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak, Euskal AEko hotel-establezimenduen guztizkoan, 83.006 izan dira urrian; atzeritik etorritakoak, berriz, 26.387 izan dira. Hau da, 2019ko urrian baino % 50,2 eta % 79,7 gutxiago, hurrenez hurren. Atzerriko egoiliarren sarrerak sarrera guztien % 24,1 izan dira, eta ehuneko hori % 43,8koa zen 2019ko hilabete berean.

Batez besteko egonaldia 1,92 egunekoa izan da urrian, 2019ko urriko 1,94 eguneko batez besteko egonaldia baino apur bat laburragoa. Araban, iazko 1,87 egunetik aurtengo urriko 1,90 egunera igo da; Bizkaian ere igo da, 2019ko urriko 1,92 egunetik 2020ko urriko 2,09 egunera. Gipuzkoan, aldiz, batez besteko egonaldia 2019ko urriko 1,99 egunetik aurtengo urriko 1,77 egunera jaitsi da.

Plazen arabera betetze-maila ehuneko 34,3 puntu jaitsi da Euskal AE osoan, 2019ko urriko % 59,8tik aurtengo urriko % 25,5era igarota. Lurraldeka, eskaintako plazen arabera betetze-maila % 31,0koa da Araban, % 24,0koa Bizkaian eta % 25,4koa Gipuzkoan. Urte arteko beherakadak, hurrenez hurren, 22,2, 34,7 eta 38ko portzentaje-puntuak izan dira.

Gelen arabera betetze-maila ere ehuneko 39,9 puntu jaitsi da, % 33,3tan kokatuta Euskal AE osoan. Lurraldeka, erregistratutako balioak % 41,5 dira Araban, % 32,5 Bizkaian eta % 31,6 Gipuzkoan.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren hotel-establezimenduak. COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
2020	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Urria	501	127	53	22	191	49	257	56
Iraila	525	96	54	21	198	39	273	36
Abuztua	532	88	55	20	203	33	274	35
Uztaila	510	109	55	20	192	43	263	46
Ekaina	372	246	46	29	141	94	185	123
Maiatza	188	430	20	55	80	156	88	219
Apirila	56	563	6	69	29	207	21	287
Martxoa	532	87	62	13	206	30	264	44
Urria 2019	576	39	68	7	223	12	285	20

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Euskal AEn, guztira, 501 hotel-establezimendu izan dute jardueraren bat aurtengo urrian, aurreko hilean (2020ko irailean) baino 24 gutxiago, eta 2019ko urrian gutxienez egun bat ireki zutenek baino 75 gutxiago. 2020ko urriko egun guztietan itxitako establezimenduen kopuruak, ordea, gora egin du irailean egoera berean egon zirenekin alderatuta: 127 guztiz itxita urrian, eta 96, berriz, 2020ko irailean. 2019ko urrian, ordea, 39 establezimendu itxita egon ziren hilabete osoan zehar.

Eguneko batez besteko tarifa (ADR) eta, beraz, baita gela eskuragarriko diru-sarrerak ere (RevPar), 2020ko urritik aurrera Big Data tekniken bidez lortzen dira

Jakinarazten da ezen 2020ko urrian Eustatek ETHI egiteko ekoizpen-prozesuetan **Big Dataren** teknika aurrerratuak sartu dituela, eguneko batez besteko tarifa lortzeko (ADR) eta, aldagai deribatu gisa, baita gela eskuragarriko diru-sarreraren datuak ere (RevPar). Hotel-establezimendu bakoitzerako, *online* erreserba-plataformetatik hartzen da aurreko 120 egunetako egun bakoitzeko prezioa, *web scraping* teknologia erabiliz. Informazio hori inkestako turismo-establezimenduen direktorioko informazioarekin konbinatzen da, baliozkotutako estatistika-ereduen bidez, azken urteetan lagindutako informazioarekin. Informazio gehiago nahi izanez gero, Eustaten webgunean argitaratutako [dokumentu metodologikoa](#) kontsulta daiteke.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleei dagokienez, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 69,2 eurokoa izan da 2020ko urrian, urtebete lehenago baino % 26,5 gutxiago. Batez besteko tarifa 66,5 eurokoa da Araban (% 8,4ko murrizketarekin), 63,6 eurokoa Bizkaian (% 29,9ko jaitsierarekin) eta 77 eurokoa Gipuzkoan (2019ko urrian baino % 26,8 gutxiago).

Gela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak hotel-establezimenduen betetze edo okupazioaren arabera diren, 23,1 eurokoak izan dira 2020ko urrian Euskal AEn, 2019ko urrian baino % 66,6 txikiagoak. Araban RevPar indizea 27,6 eurokoa izan da, 20,7 eurokoa Bizkaian eta 24,3 eurokoa Gipuzkoan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 45,1, % 68,6 eta % 69,4 gutxiago, hurrenez hurren.

Landetxeak

2020ko urrian 5.817 sarrera izan dira Euskal AEko **landetxeetan**, hau da, % 61,2 gutxiago urte artean. Gaualdiak (14.238 pertsona orotara) % 53,9 jaitsi dira 2019ko urrian erregistratutakoekin alderatuta.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Urria

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	m/m-12 (%)	2020/10	2019/10	2020/10	p.p.*
EUSKAL AE	5.817	-61,2	14.238	-53,9	2,45	2,06	11,3	-11,5
Araba/Álava	840	-74,7	2.182	-60,6	2,60	1,67	7,4	-10,0
Bizkaia	1.701	-64,8	3.612	-65,2	2,12	2,15	9,7	-16,1
Gipuzkoa	3.276	-52,0	8.444	-43,6	2,58	2,19	14,3	-9,5

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hiru lurraldeetan izan da jaitsiera nabarmenik. Bidaiarien sarrerak % 74,7 jaitsi dira Araban; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 64,8 eta % 52,0, hurrenez hurren. Gaualdiek antzeko portaera izan dute: % 60,6 gutxiago Araban, % 65,2 Bizkaian eta % 43,6 Gipuzkoan.

COVID-19aren krisiak landetxeetan izan duen eragina hoteletan ikusitakoaren antzekoa izan da. Izan ere, 356 establezimenduk eman dute ostatu urrian, eta 380 establezimenduk, berriz, 2019ko urrian. Aitzitik, guztira 78 ostatuk itxita jarraitu dute aldi osoan, eta 2019ko urrian, aldiz, 42 izan ziren.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren landetxeak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Urria	356	78	89	17	105	25	162	36
Iraila	363	66	93	12	107	23	163	31
Abuztua	359	69	93	12	105	24	161	33
Uztaila	351	80	88	17	103	28	160	37
Ekaina	285	143	68	37	87	42	130	64
Maiatza	167	260	30	75	54	74	83	111
Apirila	31	396	3	102	11	117	17	177
Martxoa	329	99	89	16	94	35	146	48
Urria 2019	380	42	97	5	113	16	170	21

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Era berean, aurreko hilarekin, 2020ko irailarekin, alderatuta, jarduera pixka bat murriztu dela ikus daiteke; izan ere, hilabete horretan 363 ostatuk izan zuten jarduerarik, eta urrian, berriz, 356 ostatuk. Hilabete osoan zehar itxita egon diren establezimenduak, berriz, irailean 66 izatetik urrian 78 izatera igaro dira.

Oharra. Eustatek inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eskerrak eman nahi dizkie egindako ahaleginagatik gaur egungo ezohiko egoeran. Haiei esker, zabaldu ahal izan da

informazio hau, zeinek aukera ematen baitu kuantifikatzeko COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean izan duten eragina.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62